

Galdera

Zelan pasatu zara oporretan? / Zelan pasatu dituzu oporrak? Zein da egokia?

Erantzuna

Zelan pasatu dituzu oporrak? / Zelan pasatu duzu oporretan? / Zelan ibili zara oporretan?

Ondo/ongi/ederto (baten)/primeran ibili, ondo/ongi/ederto (baten)/primeran pasatu

Txarto / gaizki ibili, txarto / gaizki pasatu

1/ Ikusi **pasatu** aditza esteka honetan ([Elhuyar](#)). 12. adiera (*du* aditza) vs 7. adiera (*da* aditza):

<ul style="list-style-type: none">● 12 <i>du ad.</i> [denbora igaro] pasar <p><i>Aurten oporrak mendian pasatuko ditugu.</i></p> <p><i>Oso ondo pasatu dugu jai hauetan.</i></p> <p><i>Harekin pasatu nahi nuke bizitza osoa.</i></p>	<ul style="list-style-type: none">● 7 <i>da ad.</i> (herr.) pasarse, excederse <p><i>pasatzen ari zara!</i></p>
--	---

2/ *Pasatu zara (da aditza)* sarrerak '**herr.**' ponderazio-marka darama, hau da, *herri-mailako hitz edo adiera, idatziz erabili ohi ez dena*, eta bestela ere esan daiteke:

Egin duzuna gehiegi/lar(regi) da.

Egin duzuna neurritz kanpoko da.

Egin duzunak neurria gainditu du.

3/ *Udan ondo pasa pasatu gabe!* goiburuan, 12. adieran erabiltzen da lehenengo *pasa* (du aditza), eta 7. adieran bigarrena, *pasatu* (da aditza). Horrela parafraseatu dezakegu:

Ondo **pasa ezazu** (du aditza), baina **ez zaitetz pasa** (da aditza).